*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**6.109**

**747/2001 ERABAKIA, urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez, Estarronako Kontzejuarekin hitzarmena egitea onartzen da, kontzeju horren kreditu eta eskubideak premiamendu bidean Foru Aldundiko Derrigorrezko Dirubilketa Agentziaren bitartez biltzeko.**

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 8. artikuluaren 1. paragrafoak ezartzen duenez, Udalak eta Foru Aldundia elkarlanean arituko dira zergak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko arlo guztietan, dagokion hitzarmena sinatuta.

Elkarlanaren hastapen hori berori ezar dakieke Arabako Foru Aldundiaren eta Kontzejuen arteko harremanei, zeren eta Kontzejuen Ogasunei ere aplikatuko baitzaie Toki Administrazioko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren II. Tituluan xedatutakoa, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen martxoaren 20ko 1/1995 Foru Arauaren 39. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Aurreko horretan oinarrituta, Arabako Foru Aldundiak eta Estarronako Kontzejuak lankidetza hitzarmen bat sinatu nahi dute, Arabako Foru Aldundiaren Nahitaezko Dirubilketa Agentziaren bitartez Estarronako Kontzejuaren kreditu eta eskubideak premiamendu bidean biltzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Jardunbide eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.7) artikuluan xedatutakoa kontuan hartu da.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horren guztiaren gainean emandako txostena ikusi da.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Lehena.- Estarronako Kontzejuarekin hitzarmena egitea onartzea Kontzejuaren kreditu eta eskubideak premiamendu bidean Arabako Foru Aldundiaren Nahitaezko Dirubilketa Agentziaren bitartez biltzeko; erabaki honen eranskinean ageri da hitzarmena.

Bigarrena.- Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena ematea aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmena bai eta hitzarmen hori gauzatzeko beharrezkoa den agiri oro ere sina ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko urriaren 2a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**6.110**

**749/2001 ERABAKIA, urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onespena ematen zaio Vitoria-Gasteizko udalerrirako egin den Ondasun Higiezinen gaineko Zergari loturiko Hiru Lurzoruaren Zedarriztapenari.**

Uztailaren 27ko 538/2001 Foru Agindu bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion Vitoria-Gasteizko udalerrirako egin den Ondasun Higiezinen gaineko Zergari loturiko Hiri Lurzoruaren Zedarriztapenari.

Aipatutako legezko arauaren xedapeneko 3. artikuluan Vitoria-Gasteizko Udalari jakinarazteko agindua eman zen. Agindu hori 2001eko uztailaren 30ean egin zen, eta Vitoria-Gasteizko Udalak 2001eko abuztuaren 2an jaso zuen xedapena.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauak (uztailaren 19ko 42/89 Foru Araua), 11. artikuluko 4. paragrafoan xedatzen duenaren arabera, dagokion Udalari hamabost eguneko entzunaldi-epea emango zaio, egoki iritzitakoa adieraz dezan. Aipatutako epea igaro ondoren, Vitoria-Gasteizko Udalak ez du desadostasunik adierazi hartutako ebazpenaren aurka.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta gaurko egunez egindako bilkuran, Diputatuen Kontseiluak hala erabaki ondoren, hauxe,

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**6.109**

**ACUERDO 747/2001, del Consejo de Diputados de 2 de octubre, que aprueba la suscripción con el Concejo de Estarrona de un Convenio para la recaudación de sus ingresos y derechos en vía de apremio a través de la Agencia Ejecutiva de esta Diputación Foral.**

El artículo 8, párrafo primero, de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales, establece que las Entidades Municipales y la Diputación Foral colaborarán mediante la suscripción del oportuno Convenio, en todos los órdenes de gestión, liquidación, inspección y recaudación de los tributos.

Este principio de colaboración, resulta también aplicable a las relaciones entre la Diputación Foral de Álava y los Concejos, dado que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 39 de la Norma Foral 1/1995, de 20 de marzo, de Concejos del Territorio Histórico de Álava, lo dispuesto en el Título II de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales, será de aplicación a la Hacienda de los Concejos.

En base a lo anterior, la Diputación Foral de Álava y el Concejo de Estarrona, desean suscribir un Convenio de colaboración, para la recaudación en vía de apremio, a través del Servicio de la Agencia Ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos del Concejo de Estarrona.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 8.7), de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

A propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar la suscripción con el Concejo de Estarrona, del Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través del Servicio de Agencia Ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos correspondientes al citado Concejo, que figura en el Anexo al presente Acuerdo.

Segundo.- Autorizar al Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, para la suscripción del Convenio a que se refiere el apartado anterior, así como de cuantos documentos sean necesarios para su ejecución.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de octubre de 2001.– El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**6.110**

**ACUERDO 749/2001, del Consejo de Diputados de 2 de octubre, que aprueba la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Vitoria-Gasteiz.**

Por Orden Foral número 538/2001, de 27 de julio, se aprobó con carácter provisional, la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Vitoria-Gasteiz.

En el artículo 3º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, disposición que se realizó con fecha 30 de Julio de 2001, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz con fecha 2 de agosto de 2001.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno. Habiendo transcurrido el citado plazo, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ERABAKI DUT:

LEHEN ARTIKULUA.- Vitoria-Gasteizko udalerrirako egin den Ondasun Higiezinen gaineko Zergari loturiko Hiri Lurzoruaren Zedarriztapen berria onestea, 135/2000 Foru Dekretuaren bidez (2000ko abenduaren 27ko Diputatuen Kontseiluarena) onetsitako Hiri Antolamenduko Plan Orokor berrian xedatutakoarekin bat etorriz.

BIGARREN ARTIKULUA.- Aurreko artikuluan esandakoaz gain, kontuan hartu beharrekoa da hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten hirigunez kanpoko lurzoruen tratamenduari buruz Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren Foru Arauak (uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak), 2.artikuluan b) idatz-zatian, 1, 2 eta 3. paragrafoetan ezarritakoa.

HIRUGARREN ARTIKULUA.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean eta Lurralde Historikoan hedapen gehien duten egunkarietan emango da argitara. Era berean, hamabost egunez jarriko da jendaurrean, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzaten. Erakustaldi hori Vitoria-Gasteizko Udaleko bulegoetan egingo da, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauak (uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak) 11. artikuluan, 5. atalean, eta aipatutako Arau hori garatu zuen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 zenbakiko Foru Dekretuak, 7, 8 eta 9. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko urriaren 2a.– Diputatu Nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBA.— Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

ACUERDO:

ARTICULO PRIMERO.- Aprobar la nueva Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Vitoria-Gasteiz, de conformidad con lo dispuesto en el nuevo Plan General de Ordenación Urbana, aprobado por Decreto Foral número 135/2000, del Consejo de Diputados de 27 de diciembre de 2000.

ARTICULO SEGUNDO.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

ARTICULO TERCERO.- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de octubre de 2001.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO PÉREZ DE ARRILUCEA.

**6.111**

**744/2001 ERABAKIA, urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez, Kulturaren Euskal Kontseiluaren batzarretarako eta batzorde iraunkorrerako ordezkariak izendatzen ditu Arabako Foru Aldundiak.**

Arabako Foru Aldundiak, bere jardunean, hainbat erakunde, sozietate eta entitatetan parte hartzen du.

Eusko Jaurlaritzak, 392/1985 Dekretuaren (abenduaren 17koa) bitartez, Euskal Kulturaren Kontseilu Orokorra sortu zuen; gero, aldatu egin zuen dekretu hori 93/1986 Dekretuaren (apirilaren 15ekoa) eta 376/1987 Dekretuaren (abenduaren 15ekoa) bitartez; eta azkenik, 219/2000 Dekretua (azaroaren 7koa) eman du horien ordez.

Azken dekretu horren helburua da Kulturaren Euskal Kontseilua sortzea eta haren organoak, osaera, egitekoak, izendapenak egiteko era eta jarduteko erregimena arautzea. 5.1 artilkuluan esaten duenez, EAEko Foru Aldundietako Kulturako diputatuak edo horiek eskuorde izendatutakoak (zuzendariaren maila izan beharko dute gutxienez) izango dira Foru Aldundien ordezkari Kontseiluaren batzarretan.

Halaber, 7. artikuluan batzorde iraunkorraren osaera aipatzen da; EAEko hiru Foru Aldundietako Kulturako diputatuak edo horiek eskuorde izendatutakoak (zuzendariaren maila izan beharko dute gutxienez) izango dira batzorde iraunkor horretako kide.

Horregatik guztiagatik, Diputatu Nagusiak eta Kultura Saileko diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, hau

ERABAKI DUT:

LEHENA.- Kultura Saileko foru diputatu Pedro de Sancristóval y Múrua izendatzea Kulturaren Euskal Kontseiluaren (erakundeen erregistroko 14 zenbakia) batzarretarako eta batzorde iraunkorrerako Arabako Foru Aldundiaren ordezkari, eta Kulturako zuzendari Mª Jesús Beriaín Gonzalo andrea haren ordezko.

BIGARRENA.- Onartzen den unetik bertatik hasiko da eragina izaten erabaki hau; horrek ez du kentzen, ordea, erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu beharra.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko urriaren 2a.– Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA. – Kultura Saileko foru diputatua, PEDRO SANCRISTÓVAL MÚRUA.

**6.111**

**ACUERDO 744/2001, del Consejo de Diputados de 2 de octubre, que designa representantes de esta Diputación Foral en el Pleno y en la Comisión permanente del Consejo Vasco de la Cultura.**

La Diputación Foral de Álava en el desarrollo de su actividad pública participa en diferentes Organismos, Sociedades o Entidades.

En base al Decreto 392/1985 de 17 de diciembre, el Gobierno Vasco creó el Consejo General de la Cultura Vasca, que fue modificado respectivamente por el Decreto 93/1986 de 15 de abril y el Decreto 376/1987 de 15 de diciembre y que finalmente ha sido sustituido por el Decreto 219/2000 de 7 de noviembre del Departamento de Cultura.

El objeto de dicho Decreto es crear el Consejo Vasco de la Cultura y regular sus órganos, composición, funciones, sistema de designación y régimen de funcionamiento. En el Artículo 5.1 se recoge que los/as Diputados/as de Cultura de las Diputaciones Forales de la CAPV, o personas en quienes deleguen, con rango mínimo de Director o Directora, serán los representantes de las mismas en el Pleno del Consejo.

Asimismo en el Artículo 7 se recoge la composición de la Comisión Permanente, entre los que se encuentran los/as tres Diputados/as de Cultura de las Diputaciones Forales de la CAPV, o personas en quienes deleguen, con rango mínimo de Director o Directora.

En su virtud, y a propuesta del Diputado General y del Diputado de Cultura, previa deliberación en el Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

ACUERDO:

PRIMERO.- Designar representantes de la Diputación Foral de Álava en el Pleno y la Comisión Permanente del Consejo Vasco de la Cultura (número 14 del Registro de Entidades) a don Pedro de Sancristóval y Múrua, Diputado de Cultura como titular, así como a doña Mª Jesús Beriaín Gonzalo, Directora de Cultura como suplente del mismo.

SEGUNDO.- El presente Acuerdo producirá efectos desde el momento de su adopción sin perjuicio de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de octubre de 2001.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Cultura, PEDRO DE SANCRISTÓVAL Y MÚRUA.